

Kudeaketari buruzko txostena
Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZietATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

I. Negozioen bilakaera

Oinarrizko bi elementuk zehazten dute Garbiker, A.B.ren jarduna:

- Urteko jardueraren zerbitzu eta ildoen programazioak berak
- 2017ko otsailean Zuzendaritza aldatzeak.

Zuzendaritza berriari egokitu zaio ekitaldiko ekintza estrategiko esanguratsuenaz hausnartzea eta horiek abian jartzea:

- Antolaketa berrantolatu, pertsonen zein azpiegituren ikuspegitik, prozesuetan oinarritutako kudeaketa sistema berri baterantz
- Sozietatearen galerak murriztu, beharrezkoa bada, Sozietateak duen Bizkaiko Foru Aldundiaren aginduetatik datozen diru-sarreraren menpekotasuna murriztu ahal izateko.

Jarraian antolaerari dagokionez izan diren mugarri esanguratsuenak azalduko ditugu, ondoren ekintza operatiboak aztertzeko.

1. Antolaketa

Barruko antolaketaren ikuspegitik hauek dira burutu diren ekintza nagusiak:

1.1. Kudeaketa eta berrikuntza Eremu berri bat sortu

Hasiera batean, zuzendaritza berriak antzeman zuen Sozietateak gabezia bat zuela prozesuen eta Giza Baliabideen kudeaketan.

Hori dela eta, bi eremu horiek kudeatzen dituen Zuzendaritza berri baten beharra ikusi da.

I. Evolución de los negocios

La actividad del ejercicio en Garbiker, S.A., viene determinada por dos elementos fundamentales:

- la propia programación de servicios y líneas de actuación para el año
- la sustitución de la Gerencia en febrero de 2017.

Sobre esta última ha recaído la reflexión y puesta en marcha de las actuaciones de carácter estratégico más significativas del ejercicio:

- Reorientación de la organización, tanto desde el punto de vista de personas como de infraestructuras, a un nuevo sistema de gestión basado en procesos
- Minimización de las pérdidas de la Sociedad para poder reducir, en su caso, la dependencia de la Sociedad de los ingresos procedentes de la encomienda de la Diputación Foral de Bizkaia.

Pasamos, a continuación, a reflejar los hitos más significativos acontecidos a nivel de organización, para analizar posteriormente las acciones operativas.

1. Organización

Desde el punto de vista de organización interna, las principales actuaciones acometidas han sido:

1.1. Generación de un nuevo Área de gestión e innovación

En un inicio, la nueva gerencia detecta que la Sociedad cuenta con un déficit en la gestión de procesos y Recursos Humanos.

Es por ello que se entiende necesaria la incorporación de una nueva Dirección que gestione ambos ámbitos.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Zuzendaritza berri horrekin, egoitza nagusiko pertsonen funtzioak berriz banatu ziren, Giza Baliabideen administrazioari, lan-arriskuen prebentzioari eta kontratazioari dagozkien lanak jarduera eredu berrien arabera kudeatzeko.

Xede horrekin, pertsona horiek gaitzeko prozesu bat gauzatu da, 2018tik aurrera normaltasunez funtzionatzeko aukera emango duena.

1.2. Inbertsio Plana

Egun dagoen flota eta makinaria parkea aztertu ondoren, elementu horiek berritzeko beharra zehaztu da.

Horretarako, aktibo mota hau eskuratzeko 5 urteko plan bat onartu da, eta ondorioz, lehen momentuan finantzatzeko Sozietatean kapitala sartzea proposatzen da.

2017an lehenengo elementuak esleitu dira: kamioiak eta garbiguneen edukiontziak, auto-trinkotzaileak eta zisterna.

1.3. Taldean lan egiteko tresnak

Egokitzen jo da intraneta berriz diseinatzea, prozesu berriei erantzuna emateko. Ekintza hau ekitaldiko azken hiruhilekoan gauzatu da, baina denboran iraunkorra den jarduna da, aplikazioa etengabe garatzen ari delako eta prozesu-fluxuak eta elkarri lotuta dagoen dokumentu kudeaketaren modulu berriak etengabe sartzen ari direlako.

1.4. Kudeaketa sistemen ziurtapena

Kalitatearen alorrean, 2017an Garbigune zerbitzuko zerbitzu-gutunaren egiaztagiraren jarraipena egin da. 2018rako eduki aldaketak aurreikusten dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Onaren eta Gardentasun Zuzendaritza nagusiak abiarazitako ekimenean sartu baikara, erakundeak herritarrei ematen dizkien zerbitzuen artean hautatu gaituztelako.

Con la llegada de la misma, se produce una redistribución de las funciones de las personas de la sede central de forma que se atiendan en base a los nuevos estándares de actuación las tareas relativas a administración de RR. HH., prevención de riesgos laborales y contratación.

Con este fin, se produce un proceso de capacitación de dichas personas que debe permitir un funcionamiento normalizado a partir de 2018.

1.2. Plan de inversiones

Tras el análisis de la actual flota y parque de maquinaria, se determina la necesidad de renovación de dichos elementos.

A estos efectos, se aprueba un plan a 5 años para la adquisición de este tipo de activo, con la propuesta de ser financiado inicialmente con la consecuente incorporación de capital a la Sociedad.

En 2017 se han adjudicado los primeros elementos: camiones y contenedores de garbigune, autocompactadoras y cisterna.

1.3. Herramientas de trabajo en equipo

Se ha estimado conveniente rediseñar la intranet de forma que responda a los nuevos procesos, acción que se desarrolla en el último trimestre del ejercicio, pero que es una actuación continua en el tiempo por la constante evolución de la aplicación y la constante incorporación de nuevos módulos de flujos de procesos y gestión documental interrelacionada.

1.4. Certificación de Sistemas de gestión

En materia de calidad, en 2017 se ha realizado el seguimiento de la certificación de la carta de servicios del servicio de Garbigunes. Para 2018 se prevén cambios en su contenido al habernos incorporado en este campo a la iniciativa lanzada desde la Dirección general de Buen gobierno y Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, por haber sido seleccionado entre los servicios que presta la institución a la ciudadanía.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZINETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Modu berean, ontzi arinen gaikako bilketaren egiaztatutako sistema ISO 14001:2015 araura egokitze lan egin da.

2. Jarduera-eremua

2.1. HHen kudeaketa eta tratamendua

Talde honetan herritarrek gaika kendu ez duten hondakin zatia sartzen da.

Helmuga Tratamendu Mekaniko Biologikoko Planta da batez ere. Bertan, berriz klasifikatzeko prozesu bat eta Zabalgabikoa egiten da. Azken honetan energetikoki balioztatzen da.

2017an egungo udalerrien banaketa aldatzeko aukera aztertu da, birziklapen tasen arabera instalazio batera edo bestera bideratzen direnak.

Gainera, aipatu beharra dago aurten udal berriak sartu direla frakzio honen tratamenduaren kudeaketan, eta egiten ez dutenak oso gutxi direla.

2.1.1. Tratamendu Mekaniko Biologikorako Planta (TMB)

2017. urtean, instalazioak 177.876,8 tona jaso ditu guztira.

Tratamendua egin ondoren, balioztatu daitezkeen hondakinen ehunekoa %5,26koa izan da, eta masa-galerarena %20,34koa.

Bestalde, BESa (berreskuratutako erregai solidoa) %30,20koa izan da, bioegonkortutako hondakina %33,14koa eta errefusa %11,08koa.

2.1.2. Zabalgarbi, A.B.

2017an, Garbikerrek 138.104,74 Tona eramanez guztira Zabalgarbi Plantara.

De la misma forma, se ha trabajado en la adaptación del sistema certificado de recogida selectiva de envases ligeros a la norma ISO 14001:2015.

2. Área operativa

2.1. Gestión y Tratamiento de R.U.

Se engloba en este grupo la fracción de residuo que previamente no ha sido retirada de forma selectiva en origen por la ciudadanía.

Su destino es principalmente la Planta de Tratamiento Mecánico Biológico (TMB) donde se realiza un proceso de reclasificación y la de Zabalgarbi, donde se valoriza energéticamente.

A lo largo de 2017, se ha estudiado la posibilidad de cambiar la actual distribución de municipios derivados a una u otra instalación en función de sus tasas de reciclaje.

Además, es de destacar que durante este año se han incorporado nuevos ayuntamientos a esta gestión de tratamiento de esta fracción, restando un número marginal de ellos por hacerlo.

2.1.1. Planta de Tratamiento Mecánico Biológico (TMB)

Se han recibido en la planta a lo largo de 2017 177.876,8 toneladas.

Tras el tratamiento el porcentaje de residuos valorizables ha sido del 5,26 % y el de pérdida de masa del 20,34 %.

Por su parte, el CSR (combustible sólido recuperado) ha constituido el 30,20 %, el residuo bioestabilizado el 33,14% y los rechazos el 11,08%.

2.1.2. Zabalgarbi, S.A.

En 2017 las toneladas totales aportadas por Garbiker a la Planta han sido 138.104,74 toneladas.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Hondakinak balioztatzeko errendimendu berriak bilatzean, Planta honetan sortutako zaborraren aprobetxamendu posibleak eta erabilera alternatiboak aztertu dira, eta ondorioak 2018an egongo dira erabilgarri.

2.1.3. Hondakindegia kontrolatuak

Hondakinen amaierako helmuga da, hautaketa prozesu guztiak pasatu ondoren eta tratamendu egokia jaso ostean.

2017ko ekitaldian, Garbikerrek 6 zabortege kudeatu ditu (Jata, Igorre, Berriz, Orkonera, Gordexola eta Amoroto). Horietan guztietan ingurumen telekontrol jarraituko ekipo berriak instalatu dira (emari-neurgailuak, meteorologia-estazioa, gordailu eta balsetako lixibiatu mailaren etengabeko kontrola), Eusko Jaurlaritzak ezarritako exijentzia berrien arabera.

Ekitaldiaren amaieran, lau itxi osteko mantentze fasean (Gordexola, Amoroto, Berriz eta Orkonera) daude, eta beste bat ixte prozesuan (Igorre).

Gordexolan itxitako zabortegean abenduaren 31ra arte 1.153 m³ lixibiatu sortu dira. Eusko Jaurlaritzak 2002ko abendua ezarri du itxi osteko epealdiaren hasieraren behin betiko data gisa, ixteko obrak egiaztatzen dituen dokumentazioa bidali zeneko data gisa, hain zuzen.

Amoroton itxitako zabortegean abenduaren 31ra arte 1.763 m³ lixibiatu sortu dira. Eusko Jaurlaritzak 2005eko urria ezarri du itxi osteko epealdiaren hasieraren behin betiko data gisa, ixteko obrak egiaztatzen dituen dokumentazioa bidali zeneko data gisa, hain zuzen.

Orkoneran itxitako zabortegean abenduaren 31ra arte 3.581 m³ lixibiatu sortu dira.

En la búsqueda de nuevos rendimientos en la valorización de los residuos se han investigado posibles aprovechamientos y usos alternativos de las escorias producidas en esta Planta, cuyas conclusiones se harán efectivas en 2018.

2.1.3. Depósitos Controlados de Residuos.

Es el destino final de los residuos, tras todo el proceso de selección y una vez han recibido el tratamiento adecuado.

En el ejercicio 2017, Garbiker ha gestionado 6 vertederos (Jata, Igorre, Berriz, Orkonera, Gordexola y Amoroto). En todo ellos se han instalado nuevos equipos de telecontrol medioambiental en continuo (caudalímetros, estaciones meteorológicas, control en continuo del nivel de lixiviados en depósitos y balsas) de acuerdo con las nuevas exigencias establecidas por el Gobierno Vasco.

Al final del ejercicio, cuatro están en fase de mantenimiento postclausura (Gordexola, Amoroto, Berriz y Orkonera) y otro en proceso de clausura (Igorre).

En el vertedero clausurado de Gordexola se han generado, hasta el 31 de diciembre, 1153 m³ de lixiviados. El Gobierno Vasco ha establecido definitivamente como fecha de inicio del periodo post-clausura la de diciembre de 2002, fecha en que se envió la documentación acreditativa de las obras de sellado.

En el vertedero clausurado de Amoroto se han generado, hasta el 31 de diciembre, 1763 m³ de lixiviados. El Gobierno Vasco ha establecido como fecha de inicio del periodo post-clausura la de octubre de 2005, fecha en que se envió la documentación acreditativa de las obras de sellado.

En el vertedero clausurado de Orkonera se han generado, hasta el 31 de diciembre, 3581 m³ de lixiviados.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Igorreko zabortegian, oraindik zabalik, abenduaren 31ra arte sortutako lixibiatu kopurua 26.720 m³ izan da.

Gainerako bi zabortegiak Jatakoa -ekitaldian aktibo egon dena- eta Artigas dira. Azken hau handitu egin da, eta ustiapena 2018ko lehenengo hiruhilekoan esleituko da.

Jatako zabortegiak urteko azken hiru hilekora arte jaso ditu hondakinak. Guztira 86.952 tona kudeatu dira, batez ere TMB Plantatik etorritako bigarren mailako hondakinak.

25.879 m³ lixibiatu sortu dira. Zabalgarbiren eten teknikoak isuria puntualki handitzea ekarri zuen.

Zabortegei guztietan sortutako lixibiatuak Artigaseko lixibiatuen Tratamendurako Plantan kudeatu dira. Araztegira zisterna-kamioiarekin eraman dira, Artigaseko zabortegian bertan sortutakoak izan ezik, kanaleztatze propioa duelako.

Guztira, horietatik eratorritako 469.187 m³ tratatu dira, baita uztailetik TMB Plantan sortutakoak ere; hori izan da ekitaldi honetan sartu den berrikuntza.

2.1.4. Transferentzia Guneak

Durango, Gernika, Zalla, Berriatua eta Igorreko transferentzia guneetan bildutako HHak Zabalgarbiko balorizazio energetikorako plantara bideratu dira, eta, geldialdi teknikoak izan direnean, Jatako biltegira. 5 planta horien artean, 56.727 tona kudeatu dira, 2016an baino %0,51 gehiago.

Durango; Durango, Berriz eta Zornotzako udalerriek eta Durangaldeko Mankomunitateak erabiltzen dute Durangoko Transferentzia Gunea. Abenduaren 31ra arte, Durangoko Transferentzia Gunetik 21.279 tona kudeatu dira, 2016an baino %0,84 gehiago.

En el vertedero de Igorre, y a la espera de su clausura, los lixiviados producidos, hasta el 31 de diciembre, ha supuesto 26.720 m³.

Los dos vertederos restantes son los de Jata, activo durante el ejercicio, y Artigas, que ha sido sometido a ampliación y cuya explotación saldrá a licitación en el primer trimestre de 2018.

El vertedero de Jata ha estado recibiendo residuos hasta el último trimestre del año. En total se han gestionado 86.952 toneladas, fundamentalmente residuos secundarios procedentes de la Planta TMB.

Los lixiviados producidos han supuesto 25.879 m³. La parada técnica de Zabalgarbi supuso un incremento puntual del vertido.

Los lixiviados generados en todos los vertederos se han gestionado en la Planta de Tratamiento de lixiviados de Artigas, habiendo sido transportados hasta la depuradora mediante camiones cisternas, salvo los producidos en el propio vertedero de Artigas que cuenta con su canalización específica.

Se han tratado un total de 469.187 m³ procedentes de los mismos, así como los generados en la Planta TMB desde el mes de julio, que es la novedad introducida en este ejercicio.

2.1.4. Plantas de Transferencia

El destino final del R.U. recogido en las plantas de transferencia de Durango, Gernika, Zalla, Berriatua e Igorre ha sido la planta de valorización energética de Zabalgarbi y el Depósito de Jata en la situación de la parada técnica de Zabagarbi. Entre estas 5 Plantas se han gestionado 56.727 t, un 0,51 % más que en 2016.

Durango. Utilizan la Planta de Transferencia de Durango la Mancomunidad de Durango y los municipios de Durango, Berriz y Amorebieta. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado en esta Planta 21.279 t, un 0,84 % más que en 2016.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Gernika: abenduaren 31ra arte, Gernikako Transferentzia Gunetik 14.1058 tona kudeatu dira, 2016an baino %0,52 gutxiago.

Gernika: Hasta el 31 de diciembre se han gestionado en esta Planta 14.058 t, un 0,52 % menos que en 2016.

Zalla: abenduaren 31ra arte, Zallako Transferentzia Gunetik 10.197 tona kudeatu dira, 2016an baino %0,37 gehiago.

Zalla: Hasta el 31 de diciembre se han gestionado en esta Planta 10.197 t, un 0,37 % más que en 2016.

Berriatua: abenduaren 31ra arte, 7.596 tona kudeatu dira, 2016an baino %0,20 gehiago.

Berriatua. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado 7.596 t, un 0,20 % más que en 2016.

Igorre: abenduaren 31ra arte 4.597 tona kudeatu ditu guztira, 2016an baino %3,09 gutxiago.

Igorre. Se han gestionado hasta el 31 de diciembre un total de 4.597 t, un 3,09 % menos que en 2016.

2.2. Bizkaiko Konpostegia

2.2. Bizkaiko Konpostegia

Abenduaren 31ra arte jasotako hondakin kopurua 7.602 tonakoa izan da: 3.018 biohondakinak eta 4.584 inausketa hondakinak. Bezero pribatu edo publikoei (udalak eta mankomunitateak) hornitutako konpost kopurua 940 tona izan da.

La cantidad de residuos recogidos hasta el 31 de diciembre ha sido de 7.602 T, 3018 de biorresiduos y 4.584 de restos de podas. La cantidad de compost suministrado a clientes privados o públicos (ayuntamientos y mancomunidades) ha alcanzado las 904 toneladas.

Konpostaren amaierako bezero kopurua handitu da. Beraz, sortutako konpost guztia atera ahal izan da. Inausketa hondakinen soberakina Biomasa Planta batean energetikoki balioztatu da.

Se ha incrementado el número de clientes finales de compost, de forma que se ha podido dar salida a la totalidad del compost producido. El exceso de restos de podas recibido se ha valorizado energéticamente en una Planta de Biomasa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun eta Natura Ingurune Sailarekin kolaboratu da Plan hau handitzeko Proiektuaren zuzendaritzan.

Se ha colaborado con el Dpto. de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia en la dirección del Proyecto de ampliación de esta Planta.

2.3. Garbiguneak

2.3. Garbigunes

Garbikerrek esleituta du Bizkaiko Foru Aldundiaren (Iraunkortasun eta Natura Ingurune Saila) agindua, Hiri Hondakinak Jasotzeko Zerbitzua emateko Garbigune Sarearen bidez, Bizkaiko Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren barruan.

Garbiker tiene asignada la Encomienda de la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural) para la prestación del Servicio de Recogida de Residuos Urbanos a través de la red de Garbigunes, dentro del marco del Plan de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZINETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Garbigunea Etxeko Hondakinak eta Hondakin Asimilagarriak Gaika Jasotzeko zentroa da, herritarrentzat doakoa da, birziklatu, berrerabili edo balioztatu daitezkeen materialak uzteko.

Onartutako hondakinen tipologia dela eta, garbigune sareak kokatutako 23 instalazio ditu. Horietan, hogeitaz hondakin mota baino gehiago utz daitezke: metalak, egurra, papera eta kartoia, pilak, linea zuria, linea marroia, gurpilak, hondakinak, fluoreszenteak, karter olioak, etxeko olioak, inausketa hondakinak, plastikoak, tamaina handikoak, bateria-pilatzaileak, tonerrak, mugikorrak, DVD-CDak, VHS-cassetteak, jostailuak, merkurio termometroak...

Basauri, Erandio, Gernika, Gueñes, Markina, Durango eta Sestaoko garbiguneetan pinturak, aerosolak, disolbatzaileak, kolak, erretxinak ere jaso daitezke.

Gainera, Erandio, Getxo, Santurtzi, Barakaldo, Durango, Derio eta Gernikako garbiguneetan material berrerabilgarriak jasotzeko etxolak dituzte.

2017ko martxoan Karrantza, Gueñes, Santurtzi, Derio, Mungia, Gernika, Durango, Markina, eta Igorren hondakin fitosanitarioen ontziak jasotzeko ontziak jarri ziren.

2017an 265.263 erabiltzaileek erabili dituzte 23 garbiguneak (aurreko urtean baino %3,16 gehiago).

26.632 tona hondakin jaso dira, hau da, 2016an baino %1,45 gehiago.

Linea zuriko, linea marroiko, pilak eta fluoreszenteen Gailu Elektriko eta Elektronikoen Kudeaketa Sistema Integratuekin Kolaborazio Hitzarmenak indarrean jarraitzen dute, hondakin mota hauek bildu eta birziklatzailerara eramateko.

El Garbigune o "Punto Limpio" es un Centro de Recogida Selectiva de Residuos Domésticos y Asimilables que de forma gratuita está puesto a disposición de la ciudadanía para que deposite aquellos materiales que son susceptibles de ser reciclados, reutilizados o valorizados.

Por tipología de residuos aceptados, la red de garbigunes dispone de 23 instalaciones ubicadas en las que se pueden depositar más de veinte tipos de residuos: metales, maderas, papel y cartón, pilas, línea blanca, línea marrón, neumáticos, escombros, fluorescentes, aceites de cárter, aceites domésticos, restos de podas, plásticos, voluminosos, baterías-acumuladores, tóner, teléfonos móviles, DVD-CDs, VHS-cassettes, juguetes, termómetros de mercurio...

También se pueden recoger pinturas, aerosoles, disolventes, colas, resinas en los garbigunes de Basauri, Erandio, Gernika, Gueñes, Markina, Durango y Sestao.

Además, en los garbigunes de Erandio, Getxo, Santurtzi, Barakaldo, Durango, Derio y Gernika disponen de casetas destinadas a la recogida de materiales reutilizables.

En marzo de 2017 se habilitaron en Karrantza, Gueñes, Santurtzi, Derio, Mungia, Gernika, Durango, Markina e Igorre contenedores específicos para la recepción de envases de residuos fitosanitarios.

A lo largo de 2017, los 23 garbigunes han dado servicio a 265.263 personas usuarias (un 3,16 % más que el año anterior).

Se han recibido 26.632 toneladas de residuos, lo que supone un incremento del 1,45% respecto al 2016.

Se mantienen vigentes los Convenios de Colaboración con los Sistemas Integrados de Gestión de Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos de línea blanca, línea marrón, pilas y fluorescentes, para almacenamiento y transporte de este tipo de residuos hasta el reciclador.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Berrikuntza nagusia da bost garbiguneetan -Durango, Markina, Mungia, Santurtzi eta Getxo- hondakinak eta erabiltzaileak on-time kontrolatzeko kudeaketa sistema informatizatuaren proba pilotua abiarazi dela.

Instalazioak hobetzeko eta mantentzeko obrak ere egin dira, 2018an indartu beharreko alderdia, lan-arriskuen ebaluaziotik sortutako ekintza zuzentzaileen Planaren barruan.

2.4. Etxeko Hondakinen txikien Berrerabilera

Sozietateak hondakinen gaikako bilketa zerbitzua kudeatzen du, haiek berrerabiltzeko, eta, egokia denean, birziklatzeko, bai Garbiker S.A.k kudeatutako Aldundiaren Garbigune sarearen bitartez, eta bai neurri txikiko etxe-hondakinen frakzioak berrerabiltzea prestatzeko kaleetan kokatutako edukiontzien bitartez ere.

2017an, 4.114 tona kudeatu dira guztira, 394 edukiontzi daude kokatuta, eta orotara Bizkaiko 9 udalerrri daude oraindik hitzarmenarekin bat egin gabe.

2.5. Ontzi arinen gaikako bilketa

2017an zehar edukiontzi horiak kokatzen jarraitu dute 111 udalerritan, guztira 669.299 herritarri zerbitzua eskaintzeko. 2017ko abenduaren 31n, 3.937 edukiontzi zeuden kokatuta, 2016an baino 37 unitate gehiago guztira: 236 lurperatuta, 3 m³-ko 274 eta 3,5 m³-ko 3.427.

Apurtuta zeuden 309 edukiontzi eta erreta zeuden 83 edukiontzi ordezkatu dira.

Abenduaren 31ra bitartean, bildutako hondakinen kopurua 9.868.950 kg-koa izan da; 2016an baino %2,92 gehiago.

Como principal novedad, se ha lanzado una prueba piloto en cinco garbigunes, Durango, Markina, Mungia, Santurtzi y Getxo, de un sistema informatizado de gestión para el control on-time de residuos y usuarios.

También se han realizado obras correspondientes de mejora y mantenimiento de las instalaciones, aspecto a reforzar en 2018 dentro del Plan de acciones correctivas derivadas de la evaluación de riesgos laborales.

2.4. Reutilización de Residuo Domestico de pequeño tamaño

La Sociedad gestiona el Servicio de Recogida Selectiva de Residuos para su Reutilización y, en su caso reciclaje, a través de la Red de Garbigunes de la Diputación gestionados por Garbiker, S.A., así como a través de contenedores ubicados en la vía pública para la preparación para la reutilización de las fracciones de Residuos Domésticos de pequeño tamaño.

En 2017, se han gestionado un total de 4.114 toneladas, estando colocados 394 contenedores y quedando pendientes de adherirse al convenio un total de 9 municipios de Bizkaia.

2.5. Recogida selectiva de envases ligeros

Durante 2017 se ha continuado con la colocación de contenedores amarillos en 111 municipios, afectando a una población total de 669.299 habitantes. A 31 de diciembre de 2017, había colocados 3.937 contenedores, 37 unidades más que en 2016, en total, 236 soterrados, 274 de 3 m³ y 3.427 de 3,5 m³.

Se han sustituido 309 contenedores rotos y 83 quemados.

La cantidad de Residuos recogidos, hasta el 31 de diciembre, ha sido de 9.868.950 kg., un 2,92% más que en 2016.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

2017an zehar bildutako ontzi-hondakinen batez besteko kopurua urtean biztanleko 14,75 kilokoa zen; 2016. urtean biztanleko 14,18 kilokoa izan zenez, %4ko igoera gertatu da.

Basaurin eta Santurtzin edukiontzi kopurua handitu da, Horeca sektorearekin egindako lankidetzaren baitan.

Gainera, bilketako indartze-neurri gisa kontsumitzaile handientzako edukiontziak ere egokitu eta ikastetxe, jatetxe eta egoitzetan kokatu dira.

Hondartza-denboraldia denean, oporretako jomuga izaten diren udalerrietan edukiontzi gehiago kokatzen dira.

Garbiker arduratzen da edukiontzi horietan utzitako hondakinak bildu eta Zornotzako Ontzi Sailkategi Gunera garraiatzeaz.

2017an zehar, azterlan bat egin dute Gorliz udalerrian betetze-maila monitorizatu ahal izateko, edukiontzietan sentsore bolumetrikokoak kokatuta, eta 2018an zehar proiektu horrekin jarraitzeko inbertsio-funtsak onestea lortu da.

Beste alde batetik, barneko lan talde bat ekinean aritu da ekitaldian zehar zerbitzu eraginkorragoa ematea ahalbidetuko duen gaikako bilketa-sistema berri bat aztertzen eta hautatzen.

2.6. Ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizaziorako jarduerak

Ikastetxeen, Ikastolen, Unibertsitateen, Erakundeen eta abarren bisitak antolatu dira HHen hondakindegia kontrolatuak eta Garbiguneak ikustera joan daitezen, eta, horrenbestez, ikasleak euren irakasleekin izan ditugu bisitari.

La cantidad media de residuos de envases recogida durante 2017 alcanza los 14,75 Kg/año por habitante frente a los 14,18 kg/año del año 2016, lo que supone un incremento del 4%

Se ha reforzado el número de contenedores en Basauri y Santurtzi dentro de la colaboración con el sector Horeca.

Además, como refuerzo de recogida también se han adaptado contenedores para grandes consumidores y colocado en colegios, restaurantes, residencias.

También durante la temporada de playas se colocan contenedores de refuerzo en los municipios que son destino vacacional.

Garbiker es la encargada de la recogida y transporte hasta la Planta Clasificadora de Envases de Amorebieta de los residuos depositados en estos contenedores.

Durante 2017, se ha realizado un estudio en el municipio de Gorliz con la colocación de sensores volumétricos en los contenedores para la monitorización del nivel de llenado y se ha conseguido la aprobación de Fondos de inversión para continuar con el proyecto durante 2018.

Por otra parte, un grupo de trabajo interno ha estado trabajando a lo largo del ejercicio en el análisis y selección de un nuevo sistema de recogida selectiva que permita la realización de un servicio más eficiente.

2.6. Actividades de Sensibilización y Educación Ambiental

Se han programado visitas de Colegios, Ikastolas, Universidades, Instituciones, etc. a los Depósitos Controlados de R.U. y a los Garbigunes, con presencia de alumnos acompañados de sus profesores.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Abenduaren 31ra arte, Bizkaiko hezkuntza-zentro eta elkarteek 24 bisita egin dituzte, eta bisita horietan 697 pertsonak hartu dute parte guztira.

Horrez gain, Artigasko Ingurumenen Hezkuntzarako Zentroa Ikasgelan 124 bisita izan dira, eta 3.909 pertsonak ikusi dute guztira.

2.7. Partaidetzako sozietateak

2.7.1. Bizkaiko Zabor Berzikategia, Sozietate Mugatua

Sozietate hau 1997ko maiatzaren 22an osatu zen, eta bertan %50ean parte hartzen dute Trienekens País Vascok eta Garbikerrek.

B.Z.B., S.L. ren enpresa xedea Zornotzan duen Gunean Ontzi Arinen Gaikako Bilketatik eratorritako materialen sailkapena eta banaketa egitea da. Sozietate horretan, Garbikerrek bildutako ontziak sailkatu dira, bai eta Bilboko eta Getxoko udaletan bildutakoak eta udal batzuek (Portugalete, Barakaldo, Llodio eta Galdakao) egiten duten bilketa pneumatikoetako ere.

Abenduaren 31ra arte, 17.717.000 kg hondakin tratatu dira, hots, 2016. urtean baino %8,50 gehiago.

2.7.2. Berziklatu, Sozietate Mugatua

2005eko abenduaren 2an, %50eko partaidetzaz, Garbikerrek tamaina handiko hondakinen birziklapena egiteaz gain, bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzea eta gizarteratzea lortzea ere xede duen Berziklatu enpresa mistoa sortu zuen. 2009an, %25eko partaidetza laga zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiari.

Garbikerrek birziklapen planta bat eraiki du Ortuellan, eta birrinketa linea bat eta makineria mugikorra ere eskuratu ditu. Hori guztia, Berziklatu, S.L.ri. laga zaio 25 urterako.

Hasta el 31 de diciembre se han realizado 25 visitas por parte de Centros educativos y asociaciones de Bizkaia con un total de 697 personas.

A éstas habría que añadir las 124 visitas que se han efectuado al Centro de Educación Medioambiental del vertedero de Artigas con un total de 3.909 personas.

2.7. Sociedades participadas

2.7.1. Bizkaiko Zabor Berzikategia, Sociedad Limitada

Esta Sociedad se constituyó el 22 de mayo de 1997, estando participada a día de hoy por Trienekens País Vasco y Garbiker al 50%.

El objeto social de B.Z.B., S.L. es la separación y clasificación del material procedente de la Recogida Selectiva de Envases Ligeros en la Planta que tiene en Amorebieta, en la cual se han clasificado los envases recogidos por Garbiker, así como los recogidos por los ayuntamientos de Bilbao y Getxo y los recogidos por ayuntamientos con recogida neumática (Portugalete, Barakaldo, Llodio y Galdakao).

Hasta el 31 de diciembre se han tratado 17.717.000 kg de residuos, con un aumento respecto a 2016 del 8,50%.

2.7.2. Berziklatu, Sociedad Limitada

Garbiker, constituyó, con una participación del 50%, el 2 de diciembre de 2005 la empresa mixta Berziklatu, cuyo objeto social es el reciclaje de residuos voluminosos y la inserción sociolaboral de personas en riesgo de exclusión social. En 2009 se cedió un 25% de participación a la Diputación Foral de Bizkaia

Garbiker construyó la planta de reciclaje, situada en Ortuella y adquirió la línea de trituración y maquinaria móvil. Todo ello ha sido cedido por 25 años a Berziklatu S.L.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

2016. urtean, 17.622 tona kudeatu dira, 2016. urtean baino %9,40 gehiago.

Durante 2017 se han gestionado 17.622 toneladas, con un aumento respecto a 2016 del 9,40%.

Tratamenduaren ehunekoak honako hauek izan dira:

Los porcentajes de tratamiento han sido los siguientes:

Berrerabilera / Reutilización	%0,16
Birziklapena / Reciclaje	%12,47
Baterako sorkuntza / Cogeneración	%75,53
Balorizazioa / Valorización	%11,84

2.8. Bizkaiko Lurralde Historikoan sortutako Hiri Hondakinen Behatokia

Finkatutako irizpideetan eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean jasotako definizioetan oinarrituta, "Bizkaiko Lurralde Historikoan sortutako Hiri Hondakinen Behatokia" osatu da, B.F.A.ko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak eskatuta.

Txosten horretan, Bizkaian sortutako etxe-hondakinen eta merkataritzako hondakinen kopuruak agertzen dira, haien eboluzioaren jarraipena egiteko eta haiek egoki kudeatzeko.

2017an, udalerriei dagozkien datuetan bi sailkapen berri txertatu dira: bio-hondakinak eta berrerabilera. Horiek dagoeneko badauden sailkapen hauei gehitu zaizkie: errefusa, papera, beira, ontziak eta neurri handiko hondakinak.

2.9. Beste jarduera batzuk

Goian azaldutako jardueren osagarri gisa, beste batzuk ere antolatu dira. Nabarmenenak honako hauek dira:

- Aholkularitza udalei eta erakunde publikoei: hainbat kontsulta bideratu dira, bilerak egin dira, eta bisitak egin dira udal eta herri erakundeetako teknikariek eta gainerako langileekin.

2.8. Observatorio de Residuos Domésticos y Comerciales del Territorio Histórico de Bizkaia

En base a los criterios establecidos y a las definiciones de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados, se realiza el "Observatorio de Residuos Domésticos y Comerciales del Territorio Histórico de Bizkaia" por encomienda del Dpto. de Sostenibilidad y Medio Natural de la D.F.B.

En este informe aparecen las cifras de los Residuos Domésticos y Comerciales generados en Bizkaia, cara a seguir su evolución y realizar una adecuada gestión de los mismos.

En 2017 en los datos correspondientes a municipios se han incluido dos nuevas clasificaciones, biorresiduo y reutilización, que se añaden a las ya existentes de fracción resto, papel, vidrio, envases y voluminoso.

2.9. Otras Actividades

Se han complementado las actividades reseñadas anteriormente con otras, entre las que destacan las siguientes:

- Asesoramiento a Municipios y Organismos Públicos: se han resuelto consultas, mantenido reuniones y realizado visitas con técnicos y demás personal de municipios y organismos públicos.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

- Bisita teknikoak Birziklapeneko Instalazio eta Plantetara.
- Hondakindegia kontrolatuen eta Hondakinen birziklapenaren kudeaketari buruzko zenbait Kongresu eta Jardunalditara joan gara.

II. Akzio propioak

Sozietateak ez du eragiketarik egin akzioekin 2017ko ekitaldian eta den-denak Bizkaiko Foru Aldundiarenak dira.

III. Sozietateak izan dezakeen bilakaera

2018. urterako, Sozietatearen jarduera-ildoak berberak izango direla espero da, 2017ko ekitaldian hasitako aldakuntzak sendotuz, nola antolakuntzako egitura mailan, hala zerbitzu-ildoetan txertatu beharreko berrikuntza operatiboen mailan.

IV. Ikerkuntza eta garapen ingurumen arlotako jarduerak

Garbiker, A.B.k ez du egin, ez du egiten eta ez dio beste inori eskatu ikerkuntza eta garapen proiekturik egiteko, holakotzat hainbat urtetako alditan konputatzekoa den errentagarritasuna eman behar duten produktuak garatzeko baliatzen diren diru-kopuruak ekitaldi batzuetan inbertitzen direnak joz.

Hala ere, berebiziko ahalegina egin da Sozietatean eskainitako zerbitzuak hobetzeko bere jarduerako arlo guztietan dagoen teknologia erabiltzeko eta, baita ere, bere baliabideekin nahiz inoren laguntzarekin, negozioaren kudeaketa erraztuko duten tresnak garatzeko. Dena dela, Sozietateak ez du inolako diru-kopururik aktibatu garapen horiei dagozkien kostuen zioz.

- Visitas técnicas a Instalaciones y Plantas de Reciclaje.
- Se ha asistido a diversos Congresos y Jornadas relativas a la gestión de Depósitos controlados y Reciclaje de residuos.

II. Acciones propias

La Sociedad no ha realizado operaciones con acciones durante el ejercicio 2017, perteneciendo todas ellas a la Diputación Foral de Bizkaia al cierre del mismo.

III. Evolución previsible de la Sociedad

Para el año 2018, se espera que las principales líneas de actuación de la Sociedad sigan siendo las mismas, lográndose la consolidación de las variaciones iniciadas en el ejercicio 2017, tanto a nivel de estructura organizativa como de novedades operativas a implementar en las líneas de servicios.

IV. Actividades en materia de investigación y desarrollo y medio ambiente

Garbiker, S.A., no ha realizado, ni realiza ni ha encargado a terceros proyectos de investigación y desarrollo, entendiendo como tales aquellos en los que durante varios ejercicios se invierten cantidades destinadas al desarrollo de productos de los que se espera una rentabilidad que debe computarse en periodos plurianuales.

Sin embargo, se ha realizado un especial esfuerzo en aplicar en la Sociedad aquella tecnología disponible en todas las áreas de su actividad para mejorar los servicios ofertados, así como en el desarrollo, con sus propios medios o con la ayuda de terceros, de instrumentos que faciliten la gestión del negocio. Ello no ha supuesto, sin embargo, la activación de importe alguno correspondiente a los costes incurridos en dichos desarrollos en la Sociedad.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Ingurumenari dagokionez, eta urteko kontuen Memorian azaldu denez, Sozietatearen xede soziala bera hondakinen kudeaketa egokiaren bitartez ingurumen-eragina murriztea da.

Zentzu horretan, dagozkion aseguru-polizak eta hornidurak zuzkitu dira, jarduera gauzatzean sor daitezkeen gastuei aurre egiteko.

V. Ordaintzeko batez besteko aldia

Urteko kontuen Memorian dagokion atalean aurkeztutako datuei dagokienez, bertan zehaztuta dago hornitzaileei Ordaintzeko Batez Besteko Aldia.

Adierazi beharra dago kalkulu honetan funtsezko pisu erlatiboa dutela Zabalgarbik eta T.M.B.ren azpikontratak emandako zerbitzuei egindako ordainketek.

Aipatutako kontratuetan zehaztutako ordainketa-epeek nabarmen gaitzen zuten ordaintzeko 30 eguneko aldi arauemailea, ondoriozko Batez Besteko Aldia desbideratu egin da harekiko.

Hori dela eta, erabaki da zerbitzu horien ordainketak, faktura erregistratu ondoren, 30 eguneko epearen barruko dinamika orokorrean sartzea, helburu arauemailea bete ahal izateko.

Con respecto al medio ambiente, y como ha sido expuesto en la Memoria de las cuentas anuales, el propio objeto social de la Sociedad es minimizar el impacto medioambiental a través de la adecuada gestión de los residuos.

En este sentido, se ha dotado de las correspondientes pólizas de seguro y provisiones para hacer frente a los gastos que se produzcan en el ejercicio de la actividad.

V. Período medio de pago

Con respecto a los datos presentados en la Memoria de las cuentas anuales en el apartado correspondiente, en la misma se detalla el Período Medio de Pago a proveedores.

Hay que señalar que en este cálculo, tienen un peso relativo esencial los pagos realizados a los servicios prestados por Zabalgarbi y la subcontrata de la T.M.B.

Toda vez que los plazos de pago estipulados en dichos contratos superaban el período normativo de 30 días de pago ampliamente, esto ha hecho que el Período Medio resultante se desvíe con respecto al mismo.

Por ello, se ha tomado la determinación de incluir los pagos por estos servicios en la dinámica general de pago dentro de los 30 días tras el registro de la factura, de forma que cumplamos con el objetivo normativo.



Kudeaketari buruzko txostena *Informe de Gestión*

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

VI. Finantza arriskuak kudeatzeko politika

Garbiker, A.B.-ren helburu soziala dela-eta eta bazkide bakarra denez Bizkaiko Foru Aldundiak haren gaineko jabetza duenez, Sozietateak ez du inolako finantza arriskurik, holakotzat honakoak jota:

- truke-tasaren arriskua
- kidezia arriskua
- interes-tasaren arriskua eskudiruaren fluxuetan

Nolanahi ere, bezeroen kreditu-arriskua dago; horretarako, horietako bakoitzaren arrisku metatua kontrolatzen da aldizka. Sozietateak ez dauka sortzen diren kaudimengabeziak estaltzeko asegurririk.

VII. Finantza tresnak

Sozietateak ez du inolako finantza-tresnarik kontratatzen, ez aktibo ez pasiborik.

VI. Política de gestión de riesgos financieros

Dado el alcance del objeto social de Garbiker, S.A., y la propiedad que la Diputación Foral de Bizkaia ostenta sobre ella como socio único, la Sociedad no está expuesta a riesgo financiero alguno, entendidos como tales los relativos a:

- riesgo de tipo de cambio
- riesgo de liquidez
- riesgo de tipo de interés en los flujos de efectivo

Sí existe, en todo caso, el riesgo de crédito de sus clientes, para lo que se controla el riesgo acumulado de cada uno de ellos de forma periódica. La Sociedad no dispone de seguros que cubran las insolvencias que se producen.

VII. Instrumentos financieros

La Sociedad no realiza contratación de instrumento financiero alguno, ya sea de activo o de pasivo.